

Aiaran, 2023ko abenduaren 21ean

EAJ-PNVk, beste behin ere, Aiarako Udaleko "Aldaketaren Gobernuaren" gardentasun eza salatzen du

PRENSA OIHARRA – NOTA DE PRENSA

- *EAJ-PNVko aurreko alkate Gentza Alamilloren kudeaketan, 2015etik 2022ra bitarteko udal aurrekontu guztiak eskuragarri egon dira eta daude Udalaren webgunean, gardentasunarekin eta informazioa eskuratzearekin etengabeko konpromisoa erakutsiz.*

Aiarako Udaleko EAJ-PNVren Udal Taldeak berriro adierazi du kezka handia duela EH-Bilduk eta Aiara Batuzek osatzen duten egungo Gobernu taldeak, 2023ko maiatzeko udal hauteskundeen ondoren, gardentasun falta nabaria duelako.

Aiarako Udaleko EAJ-PNV taldeko bozeramaile **Gentza Alamillok** salatu duenez, "gaur egun, Gobernu Taldeak ez ditu betetzen funtsezko informazio publikoa emateko betebeharrak, eta horrek Aiarako herritarrei kontuak ematea eta funtsezko datuak eskuratzea behartzen du".

Zehazki, joan den uztailan onartutako udal-aurrekontuak ez dira argitaratu udalaren webgunean, eta egoera hori udalerrriaren finantza-kudeaketa ulertzeko funtsezko informaziorik gabe uzten ari dira. "Udal osoko bilkuren aktarik ere ez da eman martxotik, eta horrek zaildu egiten du herritarren mesedetan hartutako osoko bilkuren erabakien jarraipena egitea", adierazi du Alamillok. Era berean, 2023ko hiruhileko fakturen erregistroa ez da argitaratu, eta auzotarrei ez zaie aukerarik eman udal-baliabideen erabilera eta finantza-kudeaketaren gardentasuna ebaluatzeko.

Azpitarratu behar da EAJ-PNVko aurreko alkate Gentza Alamilloren kudeaketan, 2015etik 2022ra bitarteko udal aurrekontu guztiak eskuragarri egon direla eta daudela Udalaren webgunean, gardentasunarekiko eta informaziorako sarbidearekiko etengabeko konpromisoa erakutsiz.

Egoera horren aurrean, galdera argia da: Non dago hain aldarrikatuta dagoen "Aldaketaren Gobernu", udalerrian gardentasuna eta parte-hartzea hobetuko zituela agintzen zuena? Aiarako alderdi jeltzaleak etengabe eskatu arren, EH-Bilduk eta Aiara Batuzek ez diete jaramonik egiten beren betebeharrei, eta ez diete funtsezko informazio publikoa eskuratzen uzten Aiarako herritarrei.

Horregatik guztiatik, "EAJ-PNVren Udal Taldeak behin eta berriz eskatzen dio egungo Gobernuari gardentasunarekin duen konpromisoa berriz aztertzeko eta berehalako neurriak hartzeko, Aiarako herritarrek beren ongizateari zuzenean eragiten dioten gaiei buruz informatuta egoteko duten oinarrizko eskubidea bermatzeko", amaitu du Gentza Alamillok.

PRENTSA OHARRA – NOTA DE PRENSA